

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Mugipay hiritarrentzat sortutako zerbitzua da, hauei denbora aurrezteko, komoditatea emateko eta preokupazioa kentzeko. Zerbitzu hau berritzailea izango da;

Hasteko, autobusetan (lurraldebus, dbus...) egongo dira aparatuak, eta hauek autobusaren ordaina pagatzea erraztuko die bidaiariei, eta baita ere, txartela kargatzea mementuan. Aparatu hauek autobusean sartu eta hasieran egongo dira, beraz bidaiaria sartu eta saldorik ez badu, aparatuan bertan txartela sartu ahal izango du nahi duen diru kantitatearekin batera eta txartela kargatu ahal izango du mementuan bertan autobusean joateko dirua eduki dezan. Aparatu honek txanponak eta bileteak onartzen ditu, eta txartela kargatzeko nahi duzuna baino diru kantitate handiagoa sartzen baduzu, kanbioak emateko aukera ere badu.

Bestetik, zerbitzu honek bidaiariari lasaitasuna eta komoditatea ematen dio; 1) Aparatu hauen esker ez duelako txartela kargatzen ibili behar dendetan autobusa hartzera joan baino lehen, eta 2) Bidaiariak ez du pentsatzen ibili behar ea saldoa duen autobuseko bidaiarako, ala kargatzera joan behar duen lehenago, zerbitzu honekin bertan kargatu eta ordaindu dezakeelako, beraz honek lasaitasuna eskaintzen dio.

Bukatzeko, aparatua sinplea izango da, leku gutxi behar duena eta autobus guztietan txertatu daitekeen zerbait. Gaur egun daudenen formatu berdineko izango da, goikaldean bileteak eta txanponak sartzeko aukerarekin eta erdialdean txartela sartzeko zerbitzuarekin kargatu ahal izateko. Behealdean, txartela pasatzeko aukera izango du, eta iskina batean kanbioak ateratzen diren lekua eta, baita ere, txartela kargatzean ematen den ticket-aren aukera.